



**Arartekoaren 2018R-41-18 Ebazpena, 2018ko apirilaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi dizkion ebazpena berrazter dezala.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu du Arartekoan ez dagoelako ados diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi izanarekin.

Kexagileak guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen du 19 urteko semearekin batera (oraindik amaren mendeko da ekonomikoki). Dioenez, 2017ko maiatzaren 19an, azaroaren 26ko 4/2011 Legeak moldatutako Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako prestazioak aitortzeko eskaera aurkeztu zuen. 2017ko ekainaren 19an, diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu zioten.

Aitzitik, 2017ko irailaren 22an, Lanbideren **dokumentazio errekerimendua** jaso zuen. Interesdunaren espedientea berraztertzen ari zen erakunde hori, eta agiri hauek aurkezteko eskatu zion interesdunari:

*Mantenu-pentsioarekin zerikusia duen demanda judiziala  
Hirugarrenen fitxa: Kontu-zenbakia eta bankua agerrarazten dituen banku-dokumentua (sic)*

2017ko urriaren 17an, kexagileak Lanbideren errekerimenduari erantzun zion, eta eskatutako dokumentazioa bidali zion. Zehatzago esanda, 2017/339189 ziurtagiriak dioenez, hau jaso zen erantzunean: "*Avances en la demanda de la pensión de alimentos y Datos de Terceros*". Horrez gain, azaldu zuen bikotekide ohiak ez zuela semeari zegokion mantenu pentsioa ordaindu 10 urtez eta, harrezkero, 102.339,71 euro zor zizkiela.

Dokumentazio hori aurkeztu arren, 2017ko urriaren 31n Lanbideren beste jakinarazpen bat jaso zuen. Horren bidez, erakunde horrek jakinarazi zion hauteman zutela **ez zituela baldintzak edo/eta eginbeharrak bete**, arrazoi hauek zirela tarteko: *Ebazpena amaitu aurretik baita prestazioaren diru-sarrera bitartean, titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.*

(...)

*Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenean edo DBEa jasotzeko eskakizunean sinatu zenuen Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenaren Aurrekordioan jasotzen diren betebeharren ez betetzea: ez duzu jakinarazi Euskal Autonomia Erkidegotik irten zarela, eta horrek eragina du gizarteratze hitzarmenean jasotako jardueren edo zure gizarteratzerara eta laneratzerara bideratutako jardueren betetzean". (sic)*





Jakinarazpen hori jaso ondoren, 2017ko azaroaren 20an, interesdunak idatzi bat aurkeztu zuen Lanbiden, azalpenak emate aldera, eta horrekin batera, abokatuaren ziurtagiria ere eraman zuen (egiaztagiri zenbakia: 2017/378560), hark ordura arte aurkeztutako dokumentazioa osatzeko. Halaber, idatzi horretan kontu hau argitu zuen interesdunak: jakinarazi gabeko irteera bat egin zuen zantzutzat hartu zuela Lanbidek pertsona horren txartelarekin Albacetetik mugimenduak egin izana; interesdunaren esanetan, aitari utzi zion kreditu txartela, ama bisitatzera joateak zekartzan gastuak ordaintzen laguntzeko, hiri horretako adinekoen egoitza batean bizi baita.

Aurkeztutako dokumentazioa gorabehera, eta nahiz eta agiri horiek emandako urrats judizialak egiaztatu, 2017ko abenduaren 7an, Lanbidek **diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi ziola** eta hura ordaintzeari utziko ziola jakinarazi zion kexagileari, arrazoi hau zela medio:

*“Hitzarmen arau-emaiaren edo epaiaren ondorioz duen/duten mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu ez izana”.*

2018ko urtarrilaren 5ean, kexagileak ebazpen horren kontrako **aukerako berraztertze errekurtsoa** jarri zuen Lanbiden (ziurtagiriaren erregistro zenbakia: 2018/5534) eta, ondoren, kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan.

Erakunde honetan aurkeztutako kexan, kexagileak azaldu zuen, 2005ean semeari mantenu pentsioa aitortu ziotenetik (haurrak 9 urte zituen orduan), arazoak izan zituela bikotekide ohiak hileroko zenbateko hori ordain zekion, eta 2008ko urritik, ez ziola ezer ere ordaindu. Orduan, interesdunak bikotekide ohiari mantenu pentsioa ez ordaintzeagatiko auzi judizialak jartzeari ekin zion. Hala egiaztatzen du abiarazitako prozeduraren hasierako faseetan Lanbiden aurkeztutako dokumentazioak.

Horrez gain, kexagileak adierazi zuen, 2009an, bikotekide ohiak elikagaien pentsioa aldatzeko eskatu zuela, oso zenbateko handia zela alegatuz. Hala ere, auzitegiek ez zuten bere eskaera baietsi eta ezarritako pentsioa (2006an 800 euroko pentsioa ezarri zen) ordaintzen jarraitu behar zuela berretsi zuten.

Kexagilearen esanetan, bikotekide ohiak egindako mantenu pentsioaren zenbatekoa gutxitzeko eskaera ezetsi ondoren, hark bere ondasun guztiak saldu zituen eta atzerrira joan zen bizitzera. Hori dela eta, interesdunak aldi horretan mantenu pentsioa judizialki erreklamatzeko jarraitu bazuen ere, auziek ez zuten aurrera egin, bere semearen aita inork ez aurkitzeko moduan zegoelako, eta, zekitelako, ez zuelako enbarga zitekeen ondasun edo soldatarik.

Semearen aita orain dela bi urte itzuli zen Espainiara, eta kexagileak, horren berri izan bezain laster, auzia jarri zion berriro ere Asturiasko Printzerrian; izan ere, lehen, han zuen bikotekide ohiak bizilekua.



Azkenik, kexagileak adierazi zigun kexa aurkeztean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP) onartutako gizarteratzeko errenta aktiboa zela bere diru-sarrera bakarra baina, esan digunez, honezkero amaitu egin zaio. Horrez gain, gizarte larrialdietarako laguntza bat jaso du zor zituen hipotekaren interesak ordaintzeko; izan ere, ezin izan zituen interes horiek ordaindu ez zuelako diru-sarrerarik. Lanbidek hilabete bakarra ordaindu zion, 2017ko urria. Orduetik ez du oinarritzko premiak asetzeko diru-sarrerarik.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, adierazitako egitatei buruzko informazioa eskatu zion Lanbideri. Horrez gain, alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi genizkion. Errepikakorrek ez izatearren, gero aipatuko ditugu.
3. **Lanbidek, Arartekoak bidalitako lankidetzaren eskaerari erantzute aldera**, erakunde horretako zuzendari nagusiak egindako txostena helarazi digu. Honako hau jaso da bertan:

*DSBE eman zitzaion ekineko nominan, 2017ko maiatzetik aurrera ondoreak izan zitzaion; izan ere, epaiaren betearazpena erreklamatzeko izapideekin hasi zela justifikatu zuen, justizia doan emateko ebazpena eta ofiziozko abokatuaren izendapena (2016/10/20) aurkeztuta. 2017/06/09an jakinarazi zitzaion honako dokumentazio hau aurkeztu behar zuela emakida eskuratzeko:*

*“Mantenu-pentsioari lotutako demanda judiziala GURASO ETA SEME-ALABEN NEURRIEI BURUZKO EPAIA GAUZATZEKO ESKAERAN EGINDAKO AURRERAPENEN BERRI EMAN BEHAR DU, 2016/10/26AN ABOKATUA ESLEITU OSTEAN”.*

- *Abokatuaren 2017/06/13ko idazki bat aurkeztu zuen, eta jakinarazi zuen gaur horretara arte ezin izan zela demanda aurkeztu, abokatu mediku-bajan egon zelako, eta 2017ko uztailean aurkeztuko zela. Hortaz, ulertu genuen gauzatze-izapideekin Aurrera jarraitzen zuela eta DSBE eman genion.*
- *Bankuak, kontua itxita zegoela-eta, itzuli egin zituen DSBEren nominak. Hori ikusita, interesdunarekin behin baino gehiagotan harremanetan jartzen saiatu ginen, telefonoz, eta ezin izan genuen. Interesdunaren berririk ez genuenez, ofiziozko berrikuspen bat abiarazi genuen (2017/REV/086959), interesdunak beste banku-kontu bate man zezan. Horrez gain, epaia gauzatzeko demandaren prozesuko aurrerapenak eskatu zitzaizkion... (931 irizpidearen arabera... Behin laguntzaren onuradun izanda, onuraduna bere eskubideak baliatzeko betebeharra betetzen ari dela irizteko, bete beharko ditu bere eskubideak baliatzeko betebeharrean berri emateko dokumentuan ezarritako izapideak eta epeak. Horren arabera, doako justizia ematen edo ukatzen duen ebazpena jaso ondoren, 2 hilabeteko epea izango da dagokion demanda jartzeko, eta horretarako abokatuarekin harremanetan jarri eta demanda aurkezteko eskaera egin beharko dio)*
- *Aurrerapenak egiaztatzeko eskatu zitzaion (jakinarazpena: 2017/10/04).*
- *2017/10/17an nahitaez betearazteko idazki bat aurkeztu zuen OVIEDO 7. FAMILIA EPAITEGIAN (2017/10/42ko datarekin, baina sinatu eta erregistratu gabe).*

- *Hasiera eman zitzaion entzunaldi-izapideari (2017/11/07an) jakinarazia), bere eskubideak baliatzeko betebeharra ez egiaztatzeagatik.*
- *2017/11/12an hau alegatu zuen: Abokatuaren abandonua eta interes-falta osasun-kontuengatik OVIEDOKO EPAITEGIRA 2017/11/08an egindako igorpenaren ziurtagiri batez justifikatu zuen.*
- *2017/12/07an jakinarazi zitzaion prestazioa azkendu egin zitzaiola (egiaztatzen denean onuraduna ez dela dagozkion epeak betetzen ari, prestazioa azkenduko da).*
- *2017/01/05ean berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zuen (5534/2018 erregistroa). Oraindik ebatzi gabe dago”.*

Aipatutako informazio hori guztia oinarri hartuta, gogoeta hauek egin ditugu:

### Gogoetak

Hizpide dugun espedienteak haxe du aztergai: kexagileak ez ote dituen bete diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko betebeharrak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoak, eta beraz, Lanbidek prestazioa iraungi izana zuzenbiderekin bat datoren.

1. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 49. artikuluan araututakoari jarraituz, Lanbidek adierazi du kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi diola 12.1.b) artikuluan xedatutako eginbeharra ez betetzeagatik, hain zuzen ere arrazoi hau dela eta: *“Hitzarmen arau-emaiaren edo epaiaren ondorioz duen/duten mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu ez izana”.*

Zehatzago esanda, herritar horrek **ez duelako bete** Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko Dekretuaren 12.1.b) artikuluan ezarritako eginbehar hau: *“1.b) Titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan”.*

Izan ere, *eskubide ekonomiko oro baliatzeko* betebeharra diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko eta iraungitzeko kausa da. Gauzak horrela, eginbehar hori ez dela betetzen jotzen da dibortzioko, banantzeko edo gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialean aitortutako mantenu pentsioa ordaintzen ez denean. Oro har, seme-alabak adin nagusikoak izan arte ordaindu behar da mantenu pentsioa; hala ere, horren ondoren ikasten jarraitzen badute edo bizibiderik ez badute, pentsio horri eutsi ahal izango zaio seme-alabak bere kabuz moldatzen diren arte. Beraz, gurasoekin bizi eta ekonomikoki beren mendeko izaten jarraitzen duten 18 urtetik gorako seme-alaben kasuan, esku artean dugun kasuan, adibidez, eskubide hori gauzatu beharko da, hots, aitari edo amari pentsioa ordain dezan erreklamatu beharko zaio.



Era berean, lege xedapen hori interpretatu du edo hari ñabardura bat erantsi dio Lanbidek erakunde horren *irizpideen dokumentuaren*, 2017ko maiatzean eguneratutakoaren, 9. atalean. Hain zuzen, erakunde publiko horren ustez aipatutako eginbeharra praktikan bete egin dela egiaztatzeko egin beharreko urratsak jaso dira atal horretan.

**2.- Jada DSBEren jasotzailea izanez gero, eskubideak baliatzeko betebeharra ez betetzeak DSBE iraungitzea ekarriko du, eta urtebetean berriz ere laguntza eskatzeko aukerarik ez izateko zigorra aplikatuko da.**

Horrez gain, Lanbideren irizpideen dokumentuaren A.2. atalean, erakunde publiko horrek adierazi du zein diren eskubide ekonomiko horiek baliatu ote diren **egiaztatzeko bitartekoak**. Azkenik, hau ezarri da agiri horretan:

*“Ezarritako epeak betetzen ez badira, ezinbesteko kausak frogatu beharko dira, edota ebazpena jasotzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik eman ez dela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu”.*

Aztergai dugun kasuan, erakunde honen ustez, kexagileak eskubide ekonomikoak baliatzeko eginbeharra eta baldintza bete du. Gainera, gure iritziz, behar bezala frogatu da kexagileari ezin zaiola egotzi gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epaia egikaritzen duen ebazpen judizialik eman ez izana, ez eta mantenu pentsioa ordaindu ez izana ere, halakorik gertatu bada.

Horri dagokionez duen iritzia adierazteko aukera izan du administrazioarekiko auzien Gasteizko 3. epaitegiak abenduaren 18ko 252/2014ko Epaian. Zehazki, hau adierazi du:

*“Es cierto que en este caso, y desde el año 2003 no consta que la recurrente haya intentado siquiera localizar al padre de su hijo, para reclamarle o requerir el pago de la pensión para el hijo de 360,61 €, fijado en el convenio regulador.*

*Ello no obstante, es cierto también que para la recurrente representa dicha misión, algo difícil, o casi imposible, pues se alega que el sujeto XXX, se encuentra en paradero desconocido (...). En definitiva, no apreciamos que la causa invocada para denegarle la renta sea de recibo y ello porque se le exige el cumplimiento de una obligación casi imposible” (FD3).”*

Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiaren ekainaren 16ko 129/2016 Epaia ere ondorio hori jaso du, eta adierazi du ezin zaiola auzi-jartzaileari jokabide hori egotzi:

*“1. La conducta de la actora, más o menos diligente, no puede subsumirse en el supuesto del artículo 19.1.a) de la LGI y correlativo artículo 10 del Decreto RGI de 2010, por varios motivos concurrentes:*





*A) En primer lugar por cuanto es determinante la intervención de un tercero al que constitucional y legalmente le estaba encomendado, una vez designada como Abogada por la comisión de justicia gratuita en la dilación en el ejercicio de las acciones de reclamación de las obligaciones alimentarias establecidas en la sentencia de Juzgado de Primera Instancia de Barakaldo a la que nos hemos referido supra.*

*B) En segundo lugar, que el propio ejercicio en plazo de las acciones de reclamación tampoco garantiza una mayor eficacia de su reclamación, como pone de manifiesto dada la situación objetivo de juzgados y tribunales, la doctrina del TC sobre dilaciones indebidas al amparo del artículo 24 de la CE (vide ad exempla la Sentencia 77/2016, de 25 de abril de 2016 (BOE núm. 131, de 31 de mayo de 2016))" (FD5)."*

Ez dugu ahaztu behar pertsona horrek gizarte bazterketa pairatzen duela, kalteberatasun egoeran dagoela, guraso bakarreko bizikidetzaren unitate baten familiaburu dela, eta seme bat duela bere ardurapean. Urte askoan ez du aitortuta duen mantenu pentsioa jaso, eta pentsio hori kobratu gabe bere eta semearen oinarritzko premiei aurre egin behar izan die.

Hala ere, kexagileak hainbatetan egiaztatu izan du Lanbiden, egoera zailean egon arren, ia 10 urtez auzitara eraman izan duela kontu hori eta semearen eskubide ekonomikoak baliatzen saiatu dela, bi autonomia erkidegotan gutxienez, hainbat auzialditan. Horretarako, doako laguntza juridikoa eskatu behar izan du behin eta berriro.

Prozesu horretan, hainbat oztopori aurre egin behar izan die behin eta berriro. Hona hemen oztopo horietako batzuk: aitak mantenu pentsioa ordaintzeari uko egin izana; bikotekide ohia hainbat urtez atzerrira bizitzera joan zela-eta epaia egikaritzeko zailtasunak (ekonomikoak nahiz distantziari eta jurisdikzioari lotutakoak) eduki izana; eta esleitu zioten ofiziozko txandako abokatuak gaixotasunagatik baja hartzeak Lanbideren bulegoak igorritako dokumentazio errekerimenduei kate egin izanak. Hori guztia dela eta, Arartekoak pentsatzen du kexagileak ezin duela gauza handirik egin, ez bada pentsioa aitortu zion epailaren ebazpena aurkeztea eta kobratzeko eskubidearen alde egindako jarduketak egiaztatzea. Ezin zaio besterik eskatu emakume horri. Izan ere, hamar urte daramatza bikotekide ohiaren pentsioa kobratu gabe, eta auzitara jo izan du behin eta berriro, babes dezaten eta bere eskubidea gauza dadin eskatuz, baina orain arte ez du arakastarik izan.

Azaldutakoa bezalako kasuetan, beste ebazpen batzuetan nahiz *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017* izeneko dokumentuan adierazi dugunez, Arartekoak interpretatzen du Lanbidek titularrak arduraz jokatu duen baloratu beharko lukeela prestazioa etetea edo iraungitzea dakarren erabakirik hartu aurretik. Izan ere, esan dugunez, **onuradunaren erantzukizun eremuarekin zerikusirik ez duten arrazoiek** eragozten dute mantenu pentsioa ezartzen duen neurria egikaritzea.





2. Horrez gain, mantenu pentsioak ordaindu ez direla-eta familia epaiak nahitaez betearazteko zailtasunak daudenean edo ezinezkoa denean horiek exekutatzea, paradoxa gertatzen da Lanbidek erantzukizunak eta ondorioak egoztean. Alde batetik, **kexagilea da kaltetuena ezin izan delako familia epaia nahitaez betearazi eta ez diotelako ordaindu** seme adingabeari zegokion mantenu pentsioa ia 10 urtez. Hala ere, semeari aitortutako mantenu pentsioa jasotzeko eskubidea erreklamatzeko prozesua kexagileak aktiboki sustatu badu ere, **azkenean, zigor bikoitza ezarri zaio interesdunari:** bikotekide ohiak ez dio pentsioa ordaindu eta, horren eraginez, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi dio.

Arartekoaren ustez, Lanbidek behar bezala aztertu beharko zituzkeen inguruabar horiek. Izan ere, egoera horrek guraso bakarreko familia bati eragiten dio, hain zuzen ere, gizarte bazterketako egoeran dagoen emakume bati eta bere ardurapeko semeari. Horixe da, hain zuzen, biztanle talderik kalteberena, Lanbidek bere barne diagnostikoetan aipatzen duenez.

3. Horrenbestez, kexagileak 10 urte eman ditu mantenu pentsioa jaso gabe. Interesdunak eskubide ekonomiko bat baliatu ez duela jota diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeak alderdi kalteberenari egozten dio mantenu pentsioa ordaindu ez izana, eta gure sistemak zailtasunak izatea gurasoetako batek mantenu pentsioa ordaintzeari uko egiten dionean pentsio hori kobratzeko eskubidea gauzatzeko.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, Arartekoak honako gomendio hau egin dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

### GOMENDIOA

Arartekoak sail horri gomendatzen dio kasu honetan interesdunari diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi dion ebazpena berrazter dezan, indarrean dagoen araudiari jarraituz, herritar horrek ez diolako diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko ezein betebeharrak betetzeari utzi.

